



2011/11/23ko prentsa-oharra


ETXEGINTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2011ko 3. hiruhilekoa

2011ko hirugarren hiruhilekoan oin berriko etxebizitzak eraikitzeko aurreikuspena jaitsi egin da; % 46,3 aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 43,3 iazko hirugarren hiruhilekoarekiko.

Etxebizitzaren birgaitzeak, bere aldetik, % 26,4 igo da azken urtean, nahiz eta aurreko hiruhilekoarekiko % 5,3 jaitsi.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2011ko hirugarren hiruhilekoan oin berriko 1.151 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, aurreko hiruhilekoan baino 991 etxebizitza gutxiago, hau da, % 46,3 gutxiago. 2010eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, oin berriko 880 etxebizitza gutxiago aurreikusi dira, % 43,3 gutxiago.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2011.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Bizkaiak, 672 etxebizitzarekin, 2011ko hirugarren hiruhilekoan aurreikusitako Euskal Autonomia Erkidego osoko oin berriko etxebizitza-eraikuntzaren % 58,4 hartzen du. Horrek 2011ko bigarren hiruhilekoan baino % 39,2 gutxiago esan



nahi du, eta 2011ko hirugarren hiruhileko aurreikusitakoak baino % 30,2 gehiago.

Araba du atzetik, 271 etxebizitzarekin, aurreikusita dauden oin berriko etxebizitza guztien % 23,5ekin. Lurralde horrek % 56,5eko jaitsiera izan du aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 45,6koa, iazko hiruhileko berarekiko.

Bestalde, Gipuzkoan oin berriko 208 etxebizitza eraikiko direla aurreikusi da, guztizkoaren % 18,1; aurreko hiruhilekoan baino % 49,8 gutxiago, eta iazko hiruhileko berean baino % 79,5 gutxiago.

Arabako Lautadan egingo dira Araban egin asmo diren ia etxebizitza guztiak, % 80,1, Bilboko metropolian Bizkaikoen % 64,6, eta Donostialdean, Gipuzkoakoen % 33,7.

Gasteizen oin berriko 216 etxebizitza eraikiko direla aurreikusi da, Euskal Autonomia Erkidego osokoen % 18,8 eta Arabakoen % 79,7, eta ondoren honako hauek daude: Getxo, 186 etxebizitzarekin -erkidegokoen % 16,2—, Barakaldo, 141 etxebizitzarekin —erkidegokoen % 12,3— eta Durango, 97rekin —% 8,4—. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, 55etan aurreikusi duten etxebizitza berriak eraikitzea —4tik batera ez da iristen—.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 177 birgaitzeak 2010eko hiruhileko berean aurreikusitako 140 birgaitzeak baino % 26,4 gehiago izan dira; baina 2011ko bigarren hiruhilekoan aurreikusitakoak baino % 5,3 gutxiago.

Euskadiko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua %13,7 jaitsi da 2011ko hirugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta %1,6 2010eko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoeraren adierazle gisa erabili ohi da) 663koa izan zen 2011ko hirugarren hiruhilekoan. Hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 13,7 gutxiago, eta urtebete lehenago baino % 1,6 gutxiago.

Hamarretik ia zortzi —% 79— birgaitze-lizentziak dira; % 18,7 oin berriko eraikinetarako, eta % 2,3 eraisketa-lanak egiteko soilik —guztira 15—.

Bizkaian obra handiko 331 lizentzia eman dira, Araban 216, eta Gipuzkoan, 116. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak lizentzia guztien % 31 dira, eta Arabaren eta Bizkaiaren kasuan, aldiz, % 16,7 eta % 15,7 hurrenez hurren.

Arabak % 28,9 jaitsi dira obra handietarako lizentziak, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 17,9 2010eko hirugarrenarekin alderatuz gero. Gipuzkoan jaitsiera % 7,9koa da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 4,1koa iazko



hiruhileko berarekin alderatua. Azkenik, Bizkaian % 2,1 gutxitu dira lizentziak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina iazko datuekin alderatuz gero, igo egin dira, % 14,1.

Arabako Lautadan eman dira Arabako lizentzien % 75. Ehuneko hori Bilboko metropoliak Bizkaia-erakundearen duen ehunekoetik -% 73,1- hurbil dago; aitzitik, Donostialdean Gipuzkoako lizentzia guztien % 41,4 baino ez dira eman.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2011ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	663	100,0	-105	-13,7	-11	-1,6
	Oin berriko eraikinak	124	18,7	-64	-34,0	-54	-30,3
	Birgaitzeak	524	79,0	-42	-7,4	41	8,5
	Eraispenak	15	2,3	1	7,1	2	15,4
Araba	Guztira	216	100,0	-88	-28,9	-47	-17,9
	Oin berriko eraikinak	36	16,7	-31	-46,3	-19	-34,5
	Birgaitzeak	174	80,6	-57	-24,7	-29	-14,3
	Eraispenak	6	2,8	0	0,0	1	20,0
Bizkaia	Guztira	331	100,0	-7	-2,1	41	14,1
	Oin berriko eraikinak	52	15,7	-22	-29,7	-23	-30,7
	Birgaitzeak	274	82,8	13	5,0	64	30,5
	Eraispenak	5	1,5	2	66,7	0	0,0
Gipuzkoa	Guztira	116	100,0	-10	-7,9	-5	-4,1
	Oin berriko eraikinak	36	31,0	-11	-23,4	-12	-25,0
	Birgaitzeak	76	65,5	2	2,7	6	8,6
	Eraispenak	4	3,4	-1	-20,0	1	33,3
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	1.328	100,0	-1.001	-43,0	-843	-38,8
	Oin berriko eraikinak	1.151	86,7	-991	-46,3	-880	-43,3
	Birgaitzeak	177	13,3	-10	-5,3	37	26,4
Araba	Guztira	306	100,0	-358	-53,9	-209	-40,6
	Oin berriko eraikinak	271	88,6	-352	-56,5	-227	-45,6
	Birgaitzeak	35	11,4	-6	-14,6	18	105,9
Bizkaia	Guztira	762	100,0	-434	-36,3	187	32,5
	Oin berriko eraikinak	672	88,2	-433	-39,2	156	30,2
	Birgaitzeak	90	11,8	-1	-1,1	31	52,5
Gipuzkoa	Guztira	260	100,0	-209	-44,6	-821	-75,9
	Oin berriko eraikinak	208	80,0	-206	-49,8	-809	-79,5
	Birgaitzeak	52	20,0	-3	-5,5	-12	-18,8

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.